

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Proiektua aurrera eroan ahal izateko, baliabide desbardinak behar izango doguz:

- **Balibide fisikikoak:**
 - LOKALA: Espazio bat behar izango dogu hortik guztia kontrolatzeko, datuen pribadutasuna eta segurtasuna barne, eta baliabideak azkarrago eta errazago eskuratzeko. Gainera, edozein arazoren aurrean, guztion artean lokal honetan lan bateratua eginez, arazoa konpontzea errazagoa izango litzateke. Hortaz, lokal bat izatera goaz, hain zuzen be Bilboko Deustu auzoan kokatua. Leku ezin hobea da start-up bat hasteko eta bertatik kontrola eukiteko.
 - Horrez gain, lan egiteko tresnak behar doguz: gitxienez hiru ordenagailu, hiru mahai, hiru aulki eta telefono bi.
- **Giza baliabideak:** Aplikazioa sortzeko eta mantentzeko diseinadore bat behar izango dogu eta software ingeniari bi. Horrez gain, proiektua sortu dogunon lana be funtsezkoa izango da. Tadean hiru pertsona gara eta bakoitzak kalidade desbardinak daukaguz. Halanda ze, pertsona batek kontu guztiak eroango dauz. Beste bat, negozio arloan arituko da, hau da, bezeroekiko harremana eroango dau eta hareekaz berba egingo dau. Eta azkenik, hirugarrenak, zerbitzua antolatuko dau bezeroen nahiak be kontuan hartuz.
- **Baliabide intelektualak:** Gure ezagutza funtsezkoa izango da proiektua aurrera eroan ahal izateko. Arazo guztiak gure esku geratuko dira eta aplikazioa bulegotik koordinatuko dogu. Hau da, GKE eta bezeroakaz komunikatuko gara eta gero informazioa ingeniariari emongo deusegu gure aplikazioan txertatu daien. Horrez gain, diru sarrerak eta kontuak kontrolatzeko ahalmena be funtsezkoa da, emaitza ekonomikoak ezagutu ahal izateko.
- **Finantza baliabideak:**
 - Kapitala: Alde batetik, bakoitzak 5.000 euro jarriko doguz, guztira 15.000 euro izanik.
 - Mailegua: 60.000 euroko diru laguntza bat eskatuko geunke start-up teknologiko bat dalako, iraunkorra eta hazkunde-ahalmen handikoa.
 - Diru laguntza: Gobernuak 100.000 euroko diru-laguntza eskainiko deusku.